

ON-LINE IKASTAROA



GARAPENERAKO HEZKUNTZA ETA HIRITARTASUN GLOBALA



ENPLEGU ETA GIZARTE
SAIETAKO SAILA
Garapen Lanikidetzarako Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y
ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Cooperación al Desarrollo



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANIKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO · EUSKAL HERRIKO UMBERTSITATEA

2009-2010 IKASTURTEA

Aurkezpena

Ikasturte honetan, mundu justu eta zuzenagoaren bilaketarekin konprometitutako hiritartasunaren eraikuntzan Hezkuntzak duen zeregina baloratu nahi da.

Gaur egungo testuinguruan, desberdintasuna eta gizarte bazterketa areagotuz doaz, eta, oraindik ere, jarrera arrazista, xenofobo eta sexistak daude, besteak beste. Hori dela eta, gazteek zenbait ezagutza, gaitasun, trebetasun eta balio eskuratu behar dituzte, herritar kritikoak izatera heldu daitezen, eta, ikastetxetik igarotzearen ondorio gisa, gaur egungo gizarte "globalizatuetan" planteatzen diren erronkei eta desafioei aurre egiteko gaitasuna izan dezaten.

Garapenerako Hezkuntzaren gaur egungo ikuspuntuak proposatzen duen Hiritartasun Globalaren kontzeptuaren arabera, ikastetxeak hiritartasunerako eskola eta praktika demokratikoaren ikasketarako espazio bihurtu beharko lirateke. Gizartearen eta prestakuntzaren aldetik hain garrantzitsuak den lan hau ez litzateke irakasgai baten espaziora mugatu be-

har; aitzitik, hezkuntza-komunitate osoaren konpromiso gisa hartu beharko litzateke.

Aipatutako ideiek osatzen dute on-line ikastaro honen gorputz nagusia, eta, beraren bitartez, proposamena oinarritzen duten ekarpen teorikoen eta praktika eraldatzailerako proposamen, ildo eta estrategien arteko oreka gorde nahi da.

Leku kopurua

- 25 pertsona (inskripzio-hurrenkeraren arabera).

Hartzaileak

- Bigarren Hezkuntzako irakasleak.
- Gurasoen elkarteak.
- Berritzeguneetako eta Irakaskuntza Zentroetako langileak.
- Hezkuntza esparruan lan egiten duten agente sozialak.

Lan metodologia

On-line ikastaroak 5 ECTS kredituren iraupen baliokidea dauka. 5 modulutan dago banatuta, eta, gutxi gorabehera, modulu bakoitzak 10 eguneko iraupena dauka. ECTS (*European Credit Transfer System*) kreditu 1ek 25 ordu ingururen balioa dauka, modu honetan banatuta:

- 15 ordu "on-line" (materiala kontsultatzea, plataforman proposatutako ariketak eta jarduerak egitea, foroan parte hartzea).
- 10 ordu ez-presentzial (lan pertsonala eta modulu bakoitzeko azken jarduera egitea).

Modulu bakoitza irakasle baten ardurapean egongo da, zeinak, dokumentazioa aukeratzeaz gain, lan hauek egingo baititu:

- Foroa dinamizatzea.
- Ikasleekin tutoretza-lanak egitea.
- Jarduerak proposatzea (moduluko azken ariketa) eta ikasleak ebaluatzea.

Ikastaroan zehar jasoko den prestakuntza espazio birtual baten bidez garatuko da. Espazio horrek gune publiko eta pribatuak izango ditu, bai eta eztabaidarako foroa eta plataforman sartzen den material idatzi eta grafiko guztiaren artxiboa ere.

Modulu bakoitzak 10 laneguneko iraupena izango du. Modulu bat amaitzean eta besteari ekin aurretik, ikasleek as-tebeteko epea izango dute proposatutako ariketa egin eta emateko.

Modulu bakoitzeko irakaslea izango da edukiekin eta jarduerekin lotutako lanaren tutoretza egiteaz arduratuko den erreferentziazko pertsona. Era berean, foroa dinamizatzeaz ere arduratuko da, foroa martxan egongo den bost egunetan; eta modulu amaieran ikasleek egingo dituzten lanak ere ebaluatuko ditu.

Lan egitaraua

Hegoako taldea ikastaroko idazkaritzaz arduratuko da, parte-hartzaileei laguntza emateko plataforma birtualaren erabileran edo ikastaroaren kudeaketarekin erlazionatutako beste edozein arlotan.

On-line erako lan proposamenetan, parte hartzera animatuko da. Ikastaroaren aprobetxamenduari buruzko ziurtagiria lortzeko, baloratu egingo da foroan parte hartzea eta modulu bakoitzerako ezarritako jarduerak egitea.

1. modulua (2009ko abenduaren 1etik 16ra)

Garapenerako eta Hiritartasunerako Hezkuntzarako sarrera

Irakaslea: Desiderio de Paz Abril

Lehen Hezkuntzako irakaslea Badia del Vallèsko La Jota HLHIn.
Soziologian doktorea UAB.

2. modulua (2010eko urtarrilaren 11tik 22ra)

Generoko perspektiba. Feminismoa eta hiritartasuna

Irakaslea: Begoña Leyra Fatou

Antropologia Sozialean doktorea UCM. Genero eta Garapeneko magisterra ICEI. ICEIko Genero eta Garapeneko Masterraren koordinatzailea.

3. modulua (2010eko otsailaren 1etik 12ra)

Hiritartasunerako Hezkuntza, hezkuntza formalaren sistematan

Irakaslea: Antonio Bolívar Botia

Didaktika eta Eskola Antolamenduko katedraduna Granadako Unibertsitateko Hezkuntza Zientzien Fakultatean.

4. modulua (2010eko otsailaren 22tik martxoaren 5era)

Gizarte multikulturalak eta Hiritartasun Globala

Irakaslea: Mariana Ruiz de Lobera Pérez-Mínguez
Soziologoa. Kulturarteko hezkuntzan aditua.
Ezagutza Kudeatu eta Ikertzeko Unitatearen
arduraduna *Médicos del Mundo España* erakundean.

5. modulua (2010eko martxoaren 15etik 26ra)

Hiritartasunaren eraikuntza soziala

Irakaslea: Miquel Àngel Essomba Gelabert
Kataluniako UNESCO Zentroaren zuzendaria.
Pedagogian doktorea UAB.

Datak

2009ko abendutik 2010eko martxora.

Inskripzioa

Izena emateko epea: azaroaren 27ra arte.

Matrikula: 35 euro.

Ordainketa modalitatea: Banku-transferentzia. (Erantsitako inskripzio-fitxa postaz edo faxez bidali behar da, transferentziaren ordainagiriarekin batera).

Titularra:Hegoa. **Erakundea:** Caja Vital Kutxa.
K/K: 2097 0149 21 0000338715

Ikastaroko idazkaritza

Gema Celorio • Alicia López de Munain • Miguel Argibay
HEGOA. Arabako Campuseko Liburutegia. UPV/EHU
138 posta-kutxatila • Nieves Cano kalea 33
01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 014 287-88 • Faxe: 945 014 287
hegoa@mundubildu.org • www.mundubildu.org

ON-LINE IKASTAROA

GARAPENERAKO HEZKUNTZA ETA HIRITARTASUN GLOBALA

Izena emateko fitxa

Izena eta Abizenak:

Lanbidea: Ikastetxea / Erakundea:

Laneko helbidea: Herria:

PK: Telefonoa:

Helbide elektronikoa:

Datu Pertsonalen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoarekin bat etorritik, jakinarazi nahi dizugu, Hegoak antolaturiko Ikastaro eta Jardunaldietan parte hartzeko, nahitaezkoa dela eskatutako datuak aurkeztea. Datu horiek fitxategi batean sartuko dira, Hegoaren ardurapean, betiere. Berariaz emandako baimenaren arabera, gure erakundeak zure datu horiek erabili ahal izango ditu, arestian aipatu helburuez gain, Hegoak antolatzen dituen jarduera eta ekitaldiei buruzko informazioa emateko, zuretzat interesgarria izan daitekeelakoan. Aipaturiko datu pertsonalak administrazio publikoei eman geniezazkieke dirulaguntzak justifikatzeko, zuk datu-prozesamendua eta lagapena baimentzen duzularik. Halaber, jakinarazi nahi dizugu, emandako datu horiek ikusi, zuzendu, aurka egin edota ezabatzeko eskubidea duzula. Horretarako, eta aipatu eskubideak egikaritzearen inguruan indarrean dagoen legeriarekin bat etorritik, idazki bat igorri beharko duzu honako helbide honetara: Hegoa. Arabako Campuseko Liburutegia. Nieves Cano kalea, 33. 01006 Vitoria-Gasteiz.